

## 5. KANALAK

Komunikazio kanalei dagokionez, eroslea gure eginkizunaz jabetzeko bi bide erabiliko ditugu:

1. Alde batetik, publizitatea erabiliko dugu. (Web orriak esaterako, non produktuaren informazio guztia aurki daiteke.)
2. Beste aldetik, gobernu erakundeekin saioak egingo ditugu haiek geure produktua merkatura bultzatzeko. izan ere, gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie ezgaituei erraztasunak izateko.



Behin erosleek, bai indibidualek, bai erakunde handiek, gure produktua baloratu ondoren, salmenta fasera igaroko ginateke, eta hor gure produktua erosteko aukerak handituko genituzke.

Salmenta fasean:

- Nahi izatekotan, produktua erosleari eramango diogu zuzenean.
- Eta eskaintzen den beste aukera izango litzateke eroslea dendan eskuragarri izatea.

Horretarako kanal zuzenak erabiliko ditugu, hau da, bitartekaririk gabe lan egingo genuke, eta horrela, gure etekin marjina handiagoa izango litzateke, gure negozioaren kudeaketa zailagoa edota garestiagoa izango den arren.



